



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2018EKO AZAROAREN 28KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORREN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2018ko urriaren 1eko erabakiaren bidez deia egin zen unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorren plazak betetzeko (2018ko urriaren 11ko EHAA), eta amaituta onartutako eta kanporatutako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketan Ataleko iragarki ohelean eta Campusetako errektoreordetzakoetan ikus daiteke, bai eta Interneteko helbide honetan ere: (<http://www.ehu.es/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Bertan jasota ageriko da lehiakidea kanporatua izateko arrazoiak.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen aipatutako legea); edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2018ko azaroaren 28a.

Errektorea.
Eskumenak eskuordetuta (2013/01/30eko Erabakia)
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordea.

Izpta.: Inmaculada Guerricagotia Marina





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZEN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00114 - 2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: *Hizkuntzalaritza orokorra* Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak. Ikastegia: Letren Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: Psikolinguistika eta Neurolinguistika.

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: Kepa Erdozia Uriarte
NAN: 72467966-A

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez